## ERANSKINA: EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN BATZORDEAREN ESTATUTUAK

## ANEXO: ESTATUTOS DE LA COMISIÓN DE DERECHO CIVIL VASCO

### I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

### CAPÍTULO I. Disposiciones generales

**1. artikulua.- Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea**

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea kide anitzeko aholku-organoa da, eta haren xedea da Euskal Zuzenbide zibilaren garapena sustatzea. Horretarako, honako hauek egingo ditu: ikertu, ebaluatu, proposamenak eztabaidatu eta aholkularitza eman Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari, baita arlo horretan lege-berrikuntzak eta aldaketak proposatu ere.

**Artículo 1.- La Comisión de Derecho civil vasco**

La Comisión de Derecho civil vasco es el órgano consultivo de naturaleza colegiada que tiene como misión impulsar el desarrollo del Derecho civil vasco por medio de la investigación, evaluación, discusión de propuestas y asesoramiento respecto al Parlamento y Gobierno vascos, incluida la función de proponer innovaciones y modificaciones legislativas en la materia.

**2. artikulua.- Atxikipen organikoa eta araubide juridikoa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean Zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen sailera atxikita dago Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea, sail horren egitura organikoari buruz indarrean dauden arauekin bat etorriz.

2. Batzordeak, atxikita dagoen sailari berariaz eskatu ondoren, beste sail batzuen eskumenekoak diren araugintzako proiektuetan edo arloetan, goian aipatutako ikerketa, ebaluazio, proposamenen eztabaida eta aholkularitza zeregin horiek ere bete ahal izango ditu, baldin eta Zuzenbide zibilarekin lotuta badaude edo zeharka zerikusirik badute, edo sail ezberdinek ekimena batera tramitatu behar badute.

3. Batzordeak estatutu hauek bete beharko ditu, eta, ordezko moduan, administrazio publikoen prozedurari eta araubide juridikoari buruzko

**Artículo 2.- Adscripción orgánica y régimen jurídico**

1. La Comisión de Derecho civil vasco está adscrita al departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco competente en materia de Derecho civil, de conformidad con las normas vigentes relativas a la estructura orgánica de dicho departamento.

2. La Comisión, previa solicitud expresa al departamento al que se encuentra adscrita, también podrá asumir dichas funciones de investigación, evaluación, discusión de propuestas y asesoramiento en materias o proyectos normativos que, siendo competencia de otros departamentos, tengan no obstante ramificaciones relativas o relación indirecta con el Derecho civil o requieran la tramitación conjunta de la iniciativa.

3. La Comisión se regirá por los presentes Estatutos y, supletoriamente, por lo dispuesto en la legislación sobre

legeriak kide anitzeko organoen funtzionamenduarekin lotuta xedatzen duena.

régimen jurídico y procedimiento de las Administraciones Públicas en relación con el funcionamiento de los órganos colegiados.

**3. artikulua.- Egoitza**

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen egoitza Gasteizen dago.

**Artículo 3.- Sede**

La Comisión de Derecho civil vasco tiene su sede en la ciudad de Vitoria-Gasteiz.

**4. artikulua.- Kanpoko harremanak**

1. Eusko Jaurlaritzak lankidetza-tresnak formalizatzea bultzatu eta sustatuko du Batzordearen antzeko izaera duten Zuzenbide zibilean espezializatutako edo kodetzearen arloko beste aholku-organo batzuekin, Espainian zein Europan edo nazioartean. Xedea izango da esperientzien trukea bultzatzea, elkarren jardunbide egokiak ezagutzea eta tresna praktiko edo informatikoak garatzea, edo interes komuneko gaietan beste lankidetza-arlo batzuk garatzea.

2. Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak harremana izango du Zuzenbidearen arloko ikasketa, informazio eta ikerketa institutu eta zentroekin, baldin eta interesgarritzat jotzen badu bere xedeak betetzeko.

3. Gizarte zibilak eta, bereziki, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzorde honen alorrekoak diren gaiekin lotutako lege- eta erregelamendu-ekimenak sustatzen dituzten batzordeek, bai eta Zuzenbide zibilaren arloan interesa duten herritarren elkarteek, elkarte profesionalek edo elkarte enpresarialek ere, Batzordearen lanetan parte hartu ahal izango dute, Estatutu hauek eta Batzordeak berak ezarritako eran.

**Artículo 4.- Relaciones externas**

1. El Gobierno vasco impulsará y promoverá la formalización de instrumentos de colaboración con otros órganos consultivos de codificación o especializados en Derecho civil, de similar naturaleza, tanto a nivel estatal como europeo o internacional, al objeto de fomentar el intercambio de experiencias, el conocimiento de buenas prácticas y el desarrollo de instrumentos prácticos o informáticos u otras áreas de cooperación en materias de interés común.

2. La Comisión de Derecho civil vasco estará en comunicación con todos aquellos institutos y centros de estudio, información e investigación del Derecho que considere de interés para el cumplimiento de sus fines.

3. La sociedad civil y, en particular, las comisiones promotoras de iniciativas legislativas o reglamentarias populares que estén en relación con las materias a las que atiende esta Comisión de derecho civil vasco, así como asociaciones ciudadanas, profesionales o empresariales con interés en el campo del Derecho civil, podrán participar en los trabajos de la Comisión en los términos y en la forma que estos Estatutos y la propia Comisión determinen.

**5. artikulua.- Batzordearen eginkizunak**

**Artículo 5.- Funciones de la Comisión**

Euskal Zuzenbide zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen lehenengo xedapen gehigarriak emandako misioarekin bat etorrita, honako eginkizun hauek izango ditu Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak:

a) Euskal Zuzenbide zibilaren garapena sustatzea, batez ere lege-erreformak egiteko beharrizanari buruzko irizpenak emanez, erreforma horien helburua denean bai indarrean dauden xedapenak kontsolidatzea, harmonizatzea eta sinplifikatzea, edo bai euskal legeria unean-uneko errealitate sozialera egokitzea, erakunde berriak arautzeko egokitasunari buruzko azterketak egitea barne, hala badagokio.

b) Indarrean dagoen zuzenbidea berrikusi, ikertu eta aztertzea, barruan hartuta, idatzizko arauez gain, ohiturazko zuzenbidea eta Euskal Zuzenbide zibilaren jatorrian dauden printzipio orokorretatik datorrena jakinaraztea eta hedatzea, zuzenbide horren aplikazioa errazteko xedez eta aurreko letran aipatzen den garapenaren euskarri izan beharko diren oinarriak eta konexio-puntuak ezartzeko xedez.

c) Zaintzako eta alerta goiztiarreko lanak egitea, Euskal Zuzenbide zibilaren legegintza garapenak eta aplikazioak izango duten Estatuko eta Europako arau-esparruaren alorrean, baita Eusko Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak eska dezaketen aholkularitza ematea ere, batez ere erakunde horiei Estatutik edo Europatik legegintza- edo araugintza-prozeduren tramitazioa dela-eta kontsultak egiten dizkietenean.

d) Eskatzen dizkioten lege-aurreproiektuen eta xedapen-proiektuen zuzentasun teknikoa eta hizkera juridikoaren eta estiloaren argitasuna sustatzea, hizkera inklusiboaren erabilera barne, eta, era berean, Batzordetik ateratzen diren testuetan aplikatzea indarrean diren legegintzako teknikaren zuzentarauak

De conformidad con la misión encomendada por la disposición adicional primera de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, a la Comisión de Derecho civil vasco le corresponden las siguientes funciones:

a) El impulso del desarrollo del Derecho civil vasco, informando en particular sobre la necesidad de reformas legislativas cuyo fin sea bien el de consolidar, armonizar y simplificar disposiciones en vigor, bien el de adecuar la legislación vasca a la realidad social de cada momento, incluyendo en su caso el análisis de la conveniencia de regular nuevas instituciones.

b) La revisión, la investigación y el estudio del derecho vigente incluyendo, además de las normas escritas, la revelación y difusión del derecho consuetudinario y derivado de los principios generales inspiradores del derecho civil vasco, al objeto tanto de facilitar su aplicación como de sentar las bases y los puntos de conexión en los que se habrá de basar el desarrollo al que se refiere la letra anterior.

c) La vigilancia y alerta temprana en relación con el marco normativo estatal y europeo en el que se deba desenvolver esta labor de desarrollo legislativo y la aplicación del Derecho civil vasco, incluyendo el asesoramiento que puedan requerir Parlamento o Gobierno vascos, especialmente cuando estos sean consultados con ocasión de la tramitación de procedimientos legislativos o normativos a nivel estatal o europeo.

d) La promoción de la corrección técnica, de claridad del lenguaje jurídico y de estilo, así como del uso inclusivo del lenguaje, de los anteproyectos de ley y proyectos de disposiciones que le sean encomendados, incluyendo la aplicación a los textos que emanen de la Comisión de las directrices de técnica legislativa y para la elaboración de proyectos de ley, decretos, órdenes y resoluciones que estén en vigor. En la misma forma, se

eta egin beharreko lege-proiektu, dekretu, agindu eta ebazpenak egitekoenak. Era berean, euskararen erabilera sustatuko da Euskal Zuzenbide zibilaren adierazpen hizkuntza legez eta bere terminología juridikoaren azterketa, bultzada eta zabalkundea, Euskaltzaindia, Eusko Legebiltzarra, Herri Arduralatitzaren Euskal Erakundea eta bere kasuan egiteko honetrarako egoki irizten diren beste gizarte eragileekin elkarlanean.

e) Europan eta Estatuan oro har onartzen diren erregulazio onaren printzipioak, eta bai administrazio-prozedurako oinarrizko legeriak zein euskal sektore publikoaren gobernantza onak eskatzen dituenak, bermatzea, eta, era berean, kontuan hartzea edo sustatzea indarrean dauden arauen emaitzen ebaluazioak eta, eskatzekoak direnean, egiten dituen araugintza-proposamenen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.

f) Zuzenbide zibilaren alorrean eskumena duen saileko titularrari aholkularitza ematea, eta, hala badagokio, Administrazio Orokorraren gainerako sailei eta, era berean, baita Batzordearekin harremana izateko ardura daukan Legebiltzarreko organoari ere, eskatzen duten guztietan.

g) Artikulu honetan ezarritakoez gain edo haien osagarri gisa, Zuzenbide zibilaren alorrean eskumena duen saileko titularrak agintzen dizkion gainerako eginkizunak.

promoverá la utilización del euskara como lengua de expresión del Derecho civil vasco y el estudio, promoción y difusión de su terminología jurídica, en colaboración con Euskaltzaindia, el Parlamento Vasco, el Instituto Vasco de Administración Pública y los agentes sociales que en su caso considere adecuados para esta función.

e) La garantía de los principios de buena regulación comúnmente aceptados a nivel europeo y estatal y exigidos tanto por la legislación básica de procedimiento administrativo como por la de buena gobernanza del sector público vasco, incluyendo la toma en consideración o la promoción de evaluaciones de resultados de las normas vigentes y evaluaciones previas de impacto de las propuestas normativas que elabore, cuando las mismas sean exigibles.

e) El asesoramiento a la persona titular del departamento competente en materia de Derecho civil, en su caso al resto de departamentos de la Administración general, y asimismo al órgano parlamentario encargado de la interlocución con la Comisión, siempre que lo requieran.

f) Todas las demás que puedan serle encomendadas por la persona titular del departamento competente en materia de Derecho civil, con carácter complementario o instrumental respecto a las establecidas en este artículo.

## II. KAPITULUA Antolaketa eta osaera

## CAPÍTULO II. Organización y composición

### 6. artikulua.- Antolaketa

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak, honako organoak izango ditu:

a) Lehendakaritza.

### Artículo 6.- Organización

La Comisión de Derecho civil vasco se organiza para su funcionamiento en los siguientes órganos:

a) La Presidencia.

b) Osoko Bilkura.

c) Idazkaritza Nagusia.

**7. artikulua.- Batzordeko lehendakaria eta haren eginkizunak**

Zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen saileko titularra izango da Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko lehendakaria, eta, lehendakari gisa, honako eginkizunak izango ditu:

a) Batzordeko ordezkari izatea.

b) Batzordearen Osoko Bilkuraren bileretan buru izatea, eta, Komite Teknikoaren bileretara joaten bada, haietan ere buru izatea.

c) Bera dagoen bileretan sortzen diren berdinketak bere botoaren bidez ebaztea.

d) Osoko Bilkuraren bileretarako deialdiak egitea.

e) Batzordekideak izendatzea .

f) Batzordearen urteko jarduera-plana onartzea, hauxe Osoko Bilkuran eztabaidatu ondoren.

g) Komite Teknikoari arau-proposamenak, irizpenak edo txostenak egin ditzan eskatzea, bere ekimenez edo Batzordeko bokalek aurkeztutako mozioetan oinarrituta, eta Legebiltzarretik hartzen diren eskaera guztiak kontuan hartuta betiere.

h) Batzordeari planteatutako gaien gaineko erantzuna Legebiltzarrera edo, hala dagokionean, aurreproiektuaren tramitazioa edo txostenaren edo irizpenaren berri izatea dagokion Administrazio Orokorreko zuzendaritzara edo sailera bidal dadin agintzea, eta, hala dagokionean, Batzordeak egindako proposamenak, azterketak edo txostenak argitara daitezen agintzea.

b) El Pleno.

c) La Secretaría general.

**Artículo 7.- Presidencia de la Comisión y sus funciones**

Ostenta la Presidencia de la Comisión de Derecho civil vasco la persona titular del departamento competente en materia de Derecho civil y, en tal condición, le corresponde:

a) Representar a la Comisión.

b) Presidir las reuniones del Pleno y, en caso de que asista, las de su Comité técnico.

c) Dirimir con su voto los empates que se produjeren en las reuniones que presida.

d) Convocar las reuniones del Pleno.

e) Nombrar a las y los vocales de la Comisión.

f) Aprobar el plan de actuación y actividades anuales de la Comisión, previa deliberación por el Pleno.

g) Encargar al Comité técnico la elaboración de propuestas normativas, dictámenes o informes, ya sea a iniciativa propia o a partir de mociones presentadas por los vocales de la Comisión, incluyendo en todo caso aquellas solicitudes que se reciban desde el Parlamento.

h) Ordenar la remisión al Parlamento o, en su caso, a la dirección o departamento de la Administración general al que corresponda la tramitación del anteproyecto o el conocimiento del informe o dictamen, de la respuesta a las cuestiones que plantee a la Comisión, incluyendo, si procede, la publicación de las propuestas, estudios o informes elaborados por la Comisión.

i) Ordenar, en su caso, la tramitación

i) Hala dagokionean, bere sailaren eskumenekoak diren araugintza-aurreproiektu eta -proposamenei dagokien tramitazioa agintzea.

j) Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen jardunari buruzko urteroko txostena igortzea Eusko Legebiltzarrari, honen ezagutza hutserako.

que corresponda a los anteproyectos y proposiciones normativas que sean competencia de su propio departamento.

j) Elevar al Parlamento Vasco, para su estricto conocimiento, un informe anual sobre la actividad de la Comisión de derecho civil vasco.

**8. artikulua.- Osoko Bilkura**

1. Batzordearen Osoko Bilkuran, Batzordeko lehendakariaz eta idazkaritza nagusiko eginkizunen ardura duten karguez gain, honako erakunde edo organoek kasuan-kasuan bokal izateko izendatzen dituztenak ere egongo dira:

a) Zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko hiru goren-kargu edo goi kargudun.

b) Eusko Legebiltzarrak izendatutako ospe handiko hiru legelari.

c) Lurralde historikoetako batzar nagusiek izendatutako ospe handiko legelari bana; hiru, guztira.

d) Emakunde ordezkatzeko bat eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean Europako gaien gainean, ekonomia sozialare gainean eta familia-politikaren gainean eskumena duten organoek izendatutako bana; lau, guztira.

e) Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko abokatuen elkargoek izendatutako bana; hiru, guztira.

f) Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko prokuradoreen elkargoek izendatutako bana; hiru, guztira.

g) Euskal Herriko Notario Elkargoak izendatutako hiru pertsona, haien jatorriari dagokionez lurraldeen arteko oreka egokia aditzeko beharrarekin.

**Artículo 8.- El Pleno**

1.- El Pleno de la Comisión estará compuesto, además de por la Presidencia de la misma, por las personas que se designen en cada caso desde las siguientes Instituciones u órganos:

a) Tres altos cargos del departamento de Gobierno vasco competente en materia de Derecho civil.

b) Tres personas juristas de prestigio designadas por el Parlamento Vasco.

c) Tres, a razón de una persona jurista de prestigio designada por cada una de las Juntas Generales de los Territorios Históricos.

d) Cuatro, a razón de una persona designada en representación de Emakunde y una de cada uno de los órganos de la Administración general de la Comunidad Autónoma competentes en las materias de asuntos europeos, en economía social y en política familiar.

e) Tres, a razón de una por cada uno de los Ilustres Colegios de Abogados de Álava, Gipuzkoa y Señorío de Vizcaya.

f) Tres, a razón de una por cada uno de los Ilustres Colegios de Procuradores de Vizcaya, Álava y Guipúzcoa.

g) Tres personas designadas por el Ilustre Colegio Notarial del País Vasco, debiendo atender a un adecuado equilibrio territorial respecto a la procedencia de las mismas.

h) Erregistratzaileen Elkargoaren Euskal Autonomia Erkidegorako organizazioak izendatutako hiru pertsona, haien jatorriari dagokionez lurraldeen arteko oreka egokia aditzeko beharrarekin.

i) Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateakizendatutako bana; hiru, guztira.

j) Zuzenbidearen Euskal Akademiak izendatutako bat.

2. Era berean, Osoko Bilkurako kide izan ahalko dira:

a) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoan dihardutenen artean izendatutako magistratu bat, Botere Judizialaren gobernu-organoak izendapen hori egitea eta eginkizun horretarako baimentzea erabakiko balu betiere.

b) Estatuko Fiskal Orokorrak, Kontseilu Fiskalaren txostena ikusita eta Euskadiko Fiskal Nagusia entzunda, Euskal Autonomia Erkidegoan dihardutenen artean izendatutako Ministaritza Fiskaleko kide bat izendapen hori egitea eta, Fiskal Orokorrak, aipatu izapidetzeak tarteko, eginkizun horretarako baimentzea erabakiko balu betiere.

3. Karguagatik izendatu direnek kargua uztean utziko diote kide izateari.

4. Kideek Osoko Bilkuran parte hartu ahal izango dute edo beren kabuz edo, ordezkari edo ordezko gisa, eskuordetutako pertsonaren bidez. Eskuordetzen den kasuetan, eskuordetutako horrek ezin izango du beste inor eskuordetu.

5. Osoko Bilkurako erabakiak bileran daudenen botoen gehiengoz hartuko dira, eta, hala dagokionean, lehendakariaren botoak ebatziko du.

h) Tres personas designadas por el Decanato del País Vasco del Colegio de Registradores, debiendo atender a un adecuado equilibrio territorial respecto a la procedencia de las mismas.

i) Tres, a razón de una por la Universidad del País Vasco–Euskal Herriko Unibertsitatea, una por la Universidad de Deusto y una por la Universidad de Mondragón.

j) Una persona desiganada por la Academia Vasca del Derecho.

2. También podrán formar parte del Pleno:

a) Un magistrado o magistrada designado por el Consejo General del Poder Judicial, de entre los ejercientes en el País Vasco, siempre que el órgano de gobierno del Poder Judicial decidiera hacer tal designación y autorizarle para esta función.

b) Una persona perteneciente al Ministerio Fiscal, designada de entre los y las ejercientes en el País Vasco por el Fiscal General del Estado, siempre que el mismo decidiera hacer tal designación y otorgar autorización para esta función.

3. Las personas designadas por razón de su cargo cesarán en el momento en que lo hacen en el cargo que ocupan.

4. Los y las vocales podrán asistir al Pleno por sí mismos o a través de persona en la que deleguen, a efectos de sustitución o de suplencia, sin que en tal caso quepa subdelegación alguna.

5. Los acuerdos del Pleno se tomarán por mayoría de votos de los y las presentes, con el voto dirimente, en su caso, de la Presidencia.

6. En ningún caso los acuerdos adoptados por el Pleno de la Comisión tienen carácter vinculante.

7. El Pleno de la Comisión se reunirá de forma ordinaria como mínimo una vez

6. Batzordearen Osoko Bilkurak hartutako erabakiak ez dira ezein kasutan lotesleak izango.

7. Batzordearen Osoko Bilkurak urtean gutxienez ohiko bilera bat egingo du, ekitaldia irekitzeko; ezohiko bilera, berriz, lehendakariak deialdia egiten duen bakoitzean egingo da, bere kabuz edo Osoko Bilkurako heren batek eskatuta.

8. Lehendakariak proposatuta eta eztabaidatu beharreko gairen batek hala eskatzen duen guztietan, Osoko Bilkurako bilera zehatz batzuetan adituei eta gizarte zibileko ordezkariei parte hartzeko deialdia egin ahal izango zaie; hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botoa ematekoa ez.

9. Batzordearen kide izango diren pertsonak izendatzeko orduan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten gizon eta emakumeen arteko oreka bilatuko da.

al año, para la apertura del curso, y de forma extraordinaria, cada vez que lo convoca la persona que ejerce la Presidencia, a iniciativa propia o a petición de un tercio de los miembros del Pleno.

8. A propuesta de la Presidencia y siempre que lo requiera alguno de los temas que se tengan que tratar, podrán ser convocados para asistir a sesiones concretas del Pleno otras personas expertas, o representantes de la sociedad civil que asistirán con voz y sin voto.

9. En la designación y nombramiento de personas que han de formar parte de la Comisión ha de procurarse una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuadas.

**9. artikulua.- Osoko Bilkuraren eginkizunak**

Honako eginkizun hauek izango ditu Osoko Bilkurak:

a) Euskal Zuzenbide zibila eguneratu, aldatu eta garatzeko proiektuak sustatu eta bultzatzea.

b) Euskal Zuzenbide zibilaren zabalkunde eta hedapenerako azterlanak eta ekimenak sustatzea.

c) Batzordeko lehendakariak onartu beharrekoa den Batzordearen urteko jarduera-planaren ildo nagusien berri izatea eta haien gainean eztabaidatzea.

d) Zuzenbide zibilean eskumena duen saileko titularrari aurkeztekoak direla jotzen diren antolamendu juridikoa aldatzeko proposamenak presta daitezen eskatzeko aurkeztu diren mozioen gainean informatzea eta eztabaidatzea, Gobernuko beste sail batzuekin batera tramitatzekoak direnak eragotzi gabe.

**Artículo 9.- Funciones del Pleno.**

Corresponden al Pleno las funciones siguientes:

a) Fomentar e impulsar los proyectos oportunos con el fin de actualizar, modificar y desarrollar el Derecho civil vasco.

b) Promover estudios e iniciativas de divulgación y difusión del Derecho civil vasco.

c) Tomar conocimiento y deliberar sobre las líneas generales del plan de actuación y actividades anuales de la Comisión que deba ser aprobado por la Presidencia.

d) Informar y deliberar sobre las mociones presentadas a fin de solicitar la preparación de propuestas de modificación del ordenamiento jurídico que se consideren deben ser elevadas al titular del departamento competente en materia de Derecho civil, sin perjuicio de las que puedan requerir su tramitación conjunta con otros

e) Antolamendu juridikoaren alderdi ezberdinei buruz komenigarritzat jotzen diren azterlanak edo ebaluazioak egiteko aurkeztu diren mozioen gainean informatzea eta eztabaidatzea.

f) Indarrean dagoen zuzenbidea sistematikoki aztertu eta berrikustea, barne hartuta, idatzizko arauez gain, ohiturazko zuzenbidea eta Euskal Zuzenbide zibilaren jatorrian dauden printzipio orokorretatik datorrena jakinaraztea eta hedatzea, zuzenbide horren aplikazioa errazteko eta haren garapenaren euskarri izan beharko diren oinarriak eta konexio-puntuak ezartzeko xedez.

g) Europan eta Estatuan oro har onartzen diren eta administrazio-prozedurako oinarrizko legeriak zein euskal sektore publikoaren gobernantza onaren gainekoak eskatzen dituzten erregulazio onaren printzipioak bermatzea eta, era berean, indarrean dauden arauen emaitzen ebaluazioak eta egiten dituen araugintza-proposamenen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioak kontuan hartzea edo sustatzea.

h) Zaintzako eta alerta goiztiarreko lanak egitea, Euskal Zuzenbide zibilaren legegintza garapen-zeregin horrek izango duen Estatuko eta Europako arau-esparruaren alorrean, baita Eusko Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak eska dezaketen aholkularitza ematea ere, batez ere erakunde horiei Estatutik edo Europatik legegintza- edo araugintza-prozeduren tramitazioa dela-eta kontsultak egiten dizkietenean.

i) Helburu berberak dituzten beste elkarte eta erakunde batzuekiko hitzarmen eta harremanen berri izatea.

j) Aurrekoekin lotutako beste edozein eginkizun, Zuzenbide zibilean eskumena duen saileko titularrak eskatzen dion guztietan.

departamentos del Gobierno.

e) Informar y deliberar sobre las mociones presentadas a fin de que se proceda a la realización de estudios o evaluaciones que consideren convenientes sobre los distintos aspectos del ordenamiento jurídico.

f) La revisión y análisis sistemático del derecho vigente incluyendo, además de las normas escritas, la revelación y difusión del Derecho consuetudinario y derivado de los principios generales inspiradores del Derecho civil vasco, al objeto tanto de facilitar su aplicación como de sentar las bases y los puntos de conexión en los que se habrá de basar su desarrollo.

g) La garantía de los principios de buena regulación comúnmente aceptados a nivel europeo y estatal y exigidos por la legislación básica de procedimiento administrativo y por la de buena gobernanza del sector público vasco, incluyendo la toma en consideración o la promoción de evaluaciones de resultados de las normas vigentes y evaluaciones previas de impacto de las propuestas normativas que elabore.

h) La vigilancia y alerta temprana en relación con el marco normativo estatal y europeo en el que se deba desenvolver esta labor de desarrollo legislativo del Derecho civil vasco, incluyendo el asesoramiento que puedan requerir Parlamento o Gobierno vascos, especialmente cuando estos sean consultados con ocasión de la tramitación de procedimientos legislativos o normativos a nivel estatal o europeo.i) Conocer de los convenios y de las relaciones con otras entidades y organismos con objetivos coincidentes.

j) Cualquier otra función relacionada con las anteriores que le encargue la persona titular del departamento competente en materia de Derecho civil.

**10. artikulua.- Osoko Bilkurako bokalak**

1. Bokalek, beren eginkizunak betetzean, objektibotasunez eta independentziaz jokatuko dute, eta honako eskubide eta ahalmenak izango dituzte:

a) Osoko Bilkuraren bileraren aurretik, eta behar besteko denborarekin, beren eginkizunak betetzeko behar dituzten agiri eta materialak edukitzea.

b) Bileretarako deialdiak hartzea eta bileretan egotea, baita bilerako gaien gainean eztabaidatzea eta bozkatzea ere, lehendakariaren zuzendaritzapean.

c) Mozioak aurkeztea, Komite Teknikoari eska dakion Zuzenbide zibilean eskumena duen saileko titularrari aurkeztekoak direla jotzen diren antolamendu juridikoa aldatzeko proposamenak prestatu ditzan, eta, hala badagokio, Batzordeari emandako eginkizunekin lotura duten antolamendu juridikoaren alderdiei buruz komenigarritzat jotzen diren azterlanak edo ebaluazioak egin ditzan.

2.- Bokalek isilpean gorde beharko dute proposamenen, irizpenen eta txostenen egoera, harik eta dagokion araua onartzen den arte eta, tramitatzen ez badira, Batzordeko lehendakariak kontrakorik adierazi arte. Betebehar hori lanen egoerari eta bileretan izandako eztabaidei, iritziei eta botoei dagokienez ere bete behar da.

**Artículo 10.- Los vocales del Pleno**

1. Los y las vocales actuarán, en el cumplimiento de su función, con objetividad e independencia, teniendo asignados los siguientes derechos y facultades:

a) Disponer, con suficiente antelación a la sesión del Pleno, de los documentos y materiales que sean necesarios para el ejercicio de su función.

b) Ser convocados y asistir a las reuniones, así como debatir y votar en las mismas sobre los asuntos sometidos a su consideración, bajo la dirección de la Presidencia.

c) Presentar mociones a fin de que se solicite al Comité técnico la preparación de propuestas de modificación del ordenamiento jurídico que consideren deben ser elevadas al titular del departamento competente en materia de Derecho civil, así como en su caso la realización de estudios o evaluaciones que se consideren convenientes sobre los distintos aspectos del ordenamiento jurídico que guarden relación con las funciones encomendadas a la Comisión.

2.- Los y las vocales están obligados a guardar sigilo sobre el estado de las propuestas, dictámenes e informes que se adopten hasta la aprobación de la norma que corresponda y, si no fueran objeto de tramitación, mientras que la Presidencia de la Comisión no autorice lo contrario. Esta obligación abarca también el estado de los trabajos, y las deliberaciones, pareceres y votos emitidos en cualquiera de las reuniones.

**11. artikulua.- Idazkaritza nagusia**

1. Batzordeko lehendakariaren menpean Idazkari nagusi bat egongo da. Honen egitekoak izango dira koordinazioa eta laguntza ematea Batzordearen lanetan, baita beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu administratiboak betetzea ere.

**Artículo 11. La Secretaría general**

1. Bajo la dependencia de la Presidencia ejercerá sus funciones un Secretario o Secretaria general, como persona encargada de coordinar y prestar asistencia en los trabajos de la Comisión, así como de facilitar los servicios administrativos precisos, que

Zerbitzu hauek, zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen sailari atxikita dauden langileek beteko dituzte.

2. Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko Idazkari nagusiaren kargua zuzenbide zibilaren arloan lege-garapenari dagokion eskumena esleituta duen organoaren titularrak beteko du.

3. Batzordearen Idazkaritza nagusiari honako hauek dagozkio:

a) Batzordeko lehendakariak proposamenei, irizpenenei edo txostenei buruz ematen dituen aginduak, jarraibideak eta betekizunak bideratzea.

b) Batzordearen kanpo- eta erakunde-harremanak koordinatzea.

c) Batzordearen eginkizunetan lagunduko duten eta elkarlanean arituko diren langileek beraien lana egoki betetzen dutela zaintzea.

d) Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta Lehendakaritzak agindutakoari jarraituz, Lehendakaritzak Osoko Bilkuran eztabaidatu ondoren onartu behar dituen Batzordearen jarduera planaren eta urteko ekintzen proposamenak prestatzea eta, halaber, horiek gauzatze aldera dagozkion jarduerak betetzea.

e) Osoko Bilkuraren eta Komite Teknikoaren bileretarako deialdiak bideratzea.

f) Osoko Bilkuraren eta Komite Teknikoaren saioak prestatzea baita horien aktak idatzi eta berak berez baimentzea ere.

g) Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearekin zerikusirik duten ziurtagiriak, eragin guztietarako, eman eta baimentzea.

h) Geroago izapidetuko diren proposamen guztiak formalizatzea, horiek behar beste dokumentatuta.

i) Idazkaritzak antolamendu egokia

se desempeñarán por personal adscrito al departamento competente en materia de derecho civil.

2. El cargo de Secretario o Secretaria general de la Comisión de Derecho civil vasco será desempeñado por la persona titular del órgano que tenga asignada la competencia sobre el desarrollo legislativo en materia de Derecho civil.

3. Corresponde a la Secretaría general de la Comisión:

a) Cursar las órdenes, instrucciones y encargos de propuestas, dictámenes o informes emanados del Presidente de la Comisión.

b) Coordinar las relaciones externas e institucionales de la Comisión.

c) Cuidar del adecuado desenvolvimiento de su trabajo por parte del personal que auxilie y colabore en las funciones de la Comisión.

d) Elaborar, para su deliberación por el pleno y de acuerdo con las indicaciones de la Presidencia, las propuestas del plan de actuación y actividades anuales de la Comisión que previa deliberación por el Pleno debe aprobar la Presidencia, y ejecutar las actuaciones que correspondan al objeto de cuidar de su cumplimiento.

e) Cursar las convocatorias para las reuniones del Pleno y del Comité técnico.

f) Preparar las sesiones del Pleno y del Comité técnico, así como redactar las actas de las mismas y autorizarlas por sí mismo.

g) Expedir y autorizar, a todos los efectos, las certificaciones relacionadas con la Comisión de Derecho civil vasco.

h) Formalizar, documentándolas suficientemente, toda clase de propuestas para su posterior tramitación.

i) Cuidar de que se lleven los libros-

izan dezan beharrezkoak diren erregistro-liburuak eramaten direla zaintzea eta baita horiek gordetzea ere.

j) Batzordearen Artxiboa antolatu eta ezin hobe funtzionatzen duela zaintzea, Batzordean aztertu izan den gai bakoitzarekin lotutako aurrekari eta datu guztien zaintza ordenatua bermatzeari arreta berrezia ipiniz. Horrez gain, Euskadiko Zuzenbide Pribatuari buruzko funts dokumentala eta bibliografikoaren sorrera izango du bere zaintzapean.

k) Gastuen aurreikuspena egitea.

registro necesarios para el buen orden de la Secretaría y su conservación.

j) Organizar y cuidar del mejor funcionamiento del Archivo de la Comisión, prestando especial atención a asegurar la ordenada conservación de cuantos antecedentes y datos se relacionen con cada asunto que haya sido objeto de estudio en la Comisión, además de supervisar la creación de un fondo documental y bibliográfico sobre el Derecho privado del País Vasco.

k) Elaborar las previsiones de gastos.

**12. artikulua.- Komite Teknikoa**

1.- Batzordearen Idazkari nagusiaren zuzendaritzapean, Komite Teknikoa eratuko da. Komite Tekniko horrek etengabe beteko du bere lana, edo Batzordearentzako txosten edo lan zehatz bat prestatzeko berariaz lan egingo du. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzu juridiko zentraletako edo sailetako aholkularitza juridikoetako legelariek osatuko dute Komite Teknikoa.

Era berean, inolako ordainik gabe eta Komite Teknikoarekin koordinatuta, Osoko Bilkuraren bokalak izendatzen dituzten erakundeek proposatutako ospe handiko juristek ere lagundu ahal izango dute.

2. Gai zehatz batzuetarako berariazko gaitasuna duten beste pertsona batzuen laguntza behar dela irizten denean, Zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen saileko titularrak izendatu ahal izango ditu pertsona horiek, Batzordeari atxikitako laguntzaile gisa, batzorde txostengile edo lantalde batean sartuta. Izendapena egitean zehaztuko den eta behar den beste denbora egongo dira laguntza ematen eta, gainera, ezin izango dute inolaz ere ordainik jaso.

**Artículo 12. El Comité técnico**

1.- Bajo la dirección de la Secretaría general de la Comisión se formará un Comité técnico que desempeñará su trabajo de modo permanente, o de modo singular para preparar una ponencia o trabajo concreto para la Comisión, y que estará integrado por letrados y letradas de los servicios jurídicos centrales o de las asesorías jurídicas de los diferentes departamentos de la Administración general de la Comunidad Autónoma.

Así mismo, también podrán colaborar, sin que medie contraprestación alguna, y sumándose coordinadamente al Comité técnico, juristas de reconocido prestigio que sean propuestos por las instituciones que designan a las vocalías del Pleno.

2. Cuando se trate de asuntos para los que se considere conveniente la colaboración de otras personas por su especial competencia, aquéllas podrán ser nombradas por el o la titular del departamento competente en materia de Derecho civil como colaboradores o colaboradoras adscritos a la Comisión, incorporándose a una ponencia o grupo de trabajo, con el fin de colaborar durante el tiempo que sea preciso y que se determine en el nombramiento, actuando en todo caso sin que medie contraprestación alguna.

**13. artikulua.- Komite Teknikoaren eginkizunak.**

Honako eginkizun hauek izango ditu Komite Teknikoak:

a) Araugintza-testuen aurreproiektuak eta proposamenak prestatu eta idaztea.

b) Euskal Zuzenbide zibilaren arauen aurrekariak aztertzea, oraingoak edo historikoak, baldin eta horrek zuzenbide horren aplikazioari buruzko irizpenak emateko balio badu edo zuzenbide hori kontserbatzeko, mantentzeko eta garatzeko balio badu.

c) Arauen gaineko ebaluazioak egitea, besteren artean praktika zibil eta judizialaren eraginaren eta errealitatearen gaineko datu estatistikoak bilduz, Euskal Estatistika Erakundera eta antzeko erakundeen laguntzarekin, bai eta notarioen estatistiken eta estatistiketarako eta analisiak egiteko Justizia Administrazioak eta Botere Judizialak dituen tresna eta baliabideen laguntzarekin.

d) Euskal Zuzenbide zibilaren garapena sustatzeko behar diren beste azterlan batzuk egitea, batez ere lege-erreformak egiteko beharrizanari buruzko irizpenak emanez, erreforma horien helburua denean bai indarrean dauden xedapenak kontsolidatzea, harmonizatzea eta sinplifikatzea, edo bai euskal legeria unean-uneko errealitate sozialera egokitzea eta, hala badagokio, erakunde berriak arautzeko egokitasunari buruzko azterketak eginez.

e) Osoko Bilkuri egotzitako beste zereginetan laguntzea, hura bilduta ez dagoen bitartean.

f) Euskal Zuzenbide zibilaren alorrean eskumena duen saileko titularrari edo Batzordearekin harremanak izateko ardura duen Legebiltzarreko organoari aholkularitza ematea, eskatzen duten

**Artículo 13.- Funciones del Comité técnico.**

Corresponden al Comité técnico las funciones siguientes:

a) Realizar las tareas de preparación y redacción de anteproyectos y propuestas de textos normativos.

b) El estudio de los antecedentes presentes o históricos de las normas de Derecho civil vasco en la medida en que ello sirva para informar su aplicación o para sustentar su conservación, mantenimiento y desarrollo.

c) La realización de las evaluaciones normativas que se le encarguen, incluyendo la recopilación de datos aplicativos y estadísticos sobre la incidencia y realidad de la práctica civil y judicial, en colaboración con el Instituto Vasco de Estadística-Eustat e instituciones homólogas, la estadística notarial o los medios e instrumentos estadísticos o de análisis de la Administración de Justicia y el Poder Judicial.

d) Otros estudios necesarios para el impulso del desarrollo del Derecho civil vasco, informando en particular sobre la necesidad de reformas legislativas cuyo fin sea bien el de consolidar, armonizar y simplificar disposiciones en vigor, bien el de adecuar la legislación vasca a la realidad social de cada momento, incluyendo en su caso el análisis de la conveniencia de regular nuevas instituciones.

e) Asistir al pleno en las demás funciones que le son asignadas, cuando aquél no se encuentre reunido.

f) El asesoramiento a la persona titular del departamento competente en materia de Derecho civil o al órgano parlamentario encargado de la interlocución con la Comisión, siempre que lo requieran y por mediación de la Presidencia de la Comisión.

guztietan eta Batzordeko lehendakariaren bitartez.